




| Esperimentazioa Kimikan | 13. Praktika Konposatu organikoen modeloak. | U.E.P./U.E.P. Donostia |
|---|--|-----------------------------------|
| <p style="text-align: center;"><u>Materiala</u></p> <p>Esferen eredua Esfera eta makilen eredua</p> <div style="display: flex; justify-content: space-around; align-items: center;">    </div> <p>Praktika honen helburua modeloen bidez konposatu organikoak adieraztea da.</p> <p>Alde esperimentalak Molekula organikoak espazioan ikuskatzeko esferen eta esfera eta makilen eredu molekularrak erabiliko dira. Loturak aztertuko dira eta molekula batzuek aurkezten duten estereoisomeria aztertuko da.</p> <p><u>Hibridazio adibideak</u></p> <ul style="list-style-type: none"> ▪ sp^3: metano, kloroformo, etano ura eta amoniako molekulak adierazi. ▪ sp^2: eteno eta bentzeno molekulak adierazi. ▪ sp: etino molekula adierazi. ▪ Ondorengo molekuletan karbono atomoen artean loturaren errotazioa aztertu: etano, eteno, etino. <p><u>Molekulen adibideak</u></p> <ul style="list-style-type: none"> ▪ Etanol, azetona, etanal, azido propanoiko, metilo azetatoa, propanamida, kloruro propiloa, etil metil propilamina eta etanonitrilo molekulak adierazi. <p><u>Konformeroen adibideak (esferen eredua)</u></p> <ul style="list-style-type: none"> ▪ 2,3-diklorobutanoaren konformeroak adierazi zalditxo adierazpena erabiliz. Arrazonatuz konformeroak egonkortasunaren arabera ordenatu. ▪ 1-etil-3-metilziklohexanoaren konformeroak adierazi. <p><u>Konfigurazio isomeroen adibideak</u></p> <ul style="list-style-type: none"> ▪ 2-buteno (cis eta trans) isomero geometrikoak adierazi. ▪ (R)-2-klorobutano konposatua adierazi. | | |